



AGINDUA, 2022KO EKAINAREN 14EKOA, EKONOMIA ETA OGASUNEKO SAILBURUARENA, ALDAKETA BATZUK EGITEN DITUENA SAILAREN 2022RAKO DIRULAGUNTZA-PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEKO AGINDUAN.

Ekonomia eta Ogasun Sailaren 2022. urterako dirulaguntza-plan estrategikoa arlo horretako sailburuaren 2022ko otsailaren 10eko agindu bidez onartu zen, hala egin behar baita Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren arabera (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, 8.1 artikulua).

Plan horren helburu estrategikoetako bat da euskal enpresa txiki eta ertainen eta banakako enpresaburuen finantzaketa-baldintzak hobetzea. Betiere helburu hori begi aurrean hartuta, dirulaguntza-lerro bat aurreikusten du «EBB batek bermatutako maileguen interes-tasa eta abal-komisioa diruz laguntzeko, baldin eta berme hori eman badio martxoaren 31ko 50/2020 Dekretuaren eta martxoaren 9ko 106/2021 Dekretuaren itzalpean. Dekretu horien bidez, laguntza-programa bat bideratzen da, ETEak, banakako enpresaburuak eta profesional autonomoak finantzatzeko 2020 eta 2021 urteetan, hartara COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egitearren».

Hilabete eskas beranduago, ordea, Errusiak Ukraina inbaditu, eta enpresak ere zipriztinduta geratu ziren, txarrerako. Izan ere, energiaren eta lehengaien prezioak gora egiteaz batera, gerta daiteke enpreson diru-sarrerak mehetzea eta eman zitzaien finantzaketa nekez itzuli ahal izatea garaiz eta txukun.

EAEko administrazioak are eta gehiago lagundu nahi die enpresa txiki eta ertainei, banakako enpresaburuei eta profesional autonomoei, ondotxo baitaki zer garrantzitsuak diren Euskadiko enpresak harilkatzeko, eta, horregatik, 2022ko apirilaren 12an Gobernu Kontseiluak aurrekontu-neurri batzuk hartu zituen, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialak ikusita. Neurri-multzorik horren barruan, erabaki zen «Ekonomia eta Ogasun Sailak eskatuko zuela egin zitezela egin beharreko aldaketak arauetan, urtebetez handitu ahal izan dadin aipatu bi dekretu horien babesean formalizatutako eragiketen gabealdia (martxoaren 31ko 50/2020 Dekretua eta martxoaren 9ko 106/2021 Dekretua: dekretu horiek garatzen dute enpresa txiki eta ertainei, banako enpresaburuei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko programa, hurrenez hurren 2020rako eta 2021erako, hartara COD-19ren eragin ekonomikoari erantzutearren).

Arau-aldaketa batzuk egin beharko dira Gobernu Kontseiluaren akordio hori betetze aldera, eta, ondorioz, 2022ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoan ere egin beharko dira egokitzapen batzuk. Dirulaguntzetarako aurrekontu-partidak, ordea, ez dira aldatuko, uste baita badagoela aurrekontu-kreditu nahikoa eta

aurreko programaren deribazio bat direla (plan horretatik eratorritako dirulaguntzez ari gara).

Hori horrela, otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuak (Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak) ematen dizkidan eskumenei jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Onartzea aldatu egin behar dela Ekonomia eta Ogasun Sailaren 2022rako dirulaguntza-plan estrategikoa. Plan estrategiko hori sailburu honen 2022ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez onartu zen. Eranskina da aldatuko: “Eranskina. Ekonomia eta Ogasun Sailaren Dirulaguntzen 2022rako Plan Estrategikoa”; eta agindu honetako Eranskinean dagoen bezala geratuko da.

Bigarrena. Agindu hau Ekonomia eta Ogasun Sailaren webgunean argitaratu beharko da, Planak eta Proiektuak atalean, bai eta antolamendu juridikoan aurreikusitako informazio- eta gardentasun-tresnetan ere. 2022ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez onartu zen Ekonomia eta Ogasun Sailaren 2022. urterako dirulaguntzen plan estrategikoa, eta agindu hau beste hartan aldaketa bat egiteko da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 14a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua.
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE

ERANSKINA
Ekonomia eta Ogasun Sailaren 2022. urterako dirulaguntzen Plan
Estrategikoa

I- Sarrera

Plan hau sail honen politika antolatzeko tresna da, helburu baitu onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak sustatzea edo xede publikoak lortzeko bultzada ematea, dirulaguntzak emanez.

Nabarmendu beharra dago plana programatikoa dela, eta, beraz, edukiak ez duela ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Izan ere, plana eraginkorra izan dadin, hainbat dirulaguntza-lerro gauzatu beharko dira, besteak beste, ekitaldiko aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta.

Plan hau prestatzeko, jomuga diren interes publikoak aztertu dira, eta 2022an horretarako izango diren baliabideekin alderatu. Hala, geure jardute-eremuan efikazia eta efizientzia indartuko ditugu, eta gardentasuna sendotu.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau egin du, 38/2003 Legean ezarritakoarekin bat, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak Dirulaguntzen Plan Estrategikoei buruz emandako 01/15 Zirkularreko jarraibideak oinarri hartuta.

II. Planaren eremu objektiboa, instituzionala eta iraupena.

Ekonomia eta Ogasun Sailak bere eskumenak erabiliz kudeatzen dituen dirulaguntzak biltzen ditu plan honek. Eskumen horiek 18/2020 Dekretuko 9. artikuluan daude jasota, eta honako alor hauei buruzkoak dira: finantza-politika eta finantza-erakundeekiko harremanak, berme-emateak, aseguru bitartekotza-jarduera kontrolatzea, gizarte-aurreikuspeneko erakundeak eta ekonomia-ikerketa.

Dirulaguntza kontzeptuaren barruan, Planak 38/2003 Legearen 3. artikuluan jasotzen diren gauzazko laguntzak biltzen ditu, adibidez, sariak (onuradunak aurretik eskatu gabe emandakoak salbu), eta eskatzaileak betetako jarduerak aintzat hartuta ematen diren beste zenbait laguntza.

Denbora-eremuari dagokionez, abian den 2022. urterako aurreikuspenak jasotzen ditu planak.

III. Planteatzen diren helburu nagusiak.

Askotariko helburuak bete nahi ditu sail honek sustapen-jarduerarekin, aipatu 18/2020 Dekretuak esleitutako eskumen-eremuak kontuan hartuta:

- Unibertsitateak EAEko ekonomiari buruz dauzkan ezagutzak aprobetxatzea, Alberto Alberdi sariaren bidez.

Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuaren arabera, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak funtzio hau du: «Ekonomia-ikerketarako metodoak garatzea, bereziki EAEko ekonomiaren ereduak eta bertako sektoreen edota segmentuen ereduak» (10.1.i) artikulua).

Unibertsitate-eremuan egiten diren ekonomia-ikerketak, hala teorikoak, nola aplikatuak, eragile publikoetara bideratu behar dira, eta haietan txertatu, eragileok baliatu ahal izan ditzaten herritarrei ematen dizkieten zerbitzuak hobetzeko erabakiak hartzerakoan. Horrela, agerian geratzen da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoarentzat zenbateko garrantzia duen unibertsitate-esparru horrekiko harremana sustatzeak.

Saria ematea, arlo horretan doktorego-tesi bat egiteak eskatzen duen ahalegin pertsonala, konpromisoa eta lan gogorra publikoki aitortzeko ez ezik, honako helburu hauek lortzeko tresna ere izango da:

- Ikerketa-ahalmena azaleratzea eta arlo ekonomikoan talentua eta interesa duten gazteak topatzea, eta horien ikertzaile-ibilbide hasiberria erraztea.
- Ekonomia aplikatuaren ikerketa bultzatzea eta gure gazteen adimen-gaitasuna eta talentua aprobetxatzea EAEko ekonomia hobetzeko.
- Mundu akademikoaren eta administrazio publikoen artean zubi iraunkorrak sortzea, ateak irekiz eta beren asmamena ekonomia berritzeko eta ekonomiaren funtzionamendua ulertzeko eredu, tresna eta teknika berriak sortzera bideratzen duten pertsonak sarituz.
- Gure gazteriaren hausnarketa eta azterketa gogotsu eta independenteak aprobetxatzea, ekinbide publikoa hobetzeko balioko duten azterlan onak izateko.

- Borondatezko gizarte-aurreikuspena sustatu eta bultzatzea.

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legeak 78. artikuluan ezartzen du Eusko Jaurlaritzak sustapen-neurriak jarriko dituela, borondatezko gizarte-aurreikuspenaren inguruko kontzientzia zabaltzeko dadin herritarren artean eta, bereziki, enpresen, langileen eta gizarte-eragileen artean. Xede hori betetzeko asmoz, unibertsitateekin, sindikatuarekin, enpresaburuen elkarteekin eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko sektorearekin lankidetzak programak aurrera eramatea proposatuko da. Bestalde, aipatu legearen 75. artikulua ezartzen duenari jarraikiz, federazioei honako funtzio hauek dagozkie, besteak beste: aholkularitza eta asistentzia juridiko-fiskala, kontabilitatekoa, ekonomiko-finantzarioa eta teknikoa, eta interes orokorreko beste edozein arlotakoa, eta,

era berean, borondatezko gizarte-aurreikuspena sustatu eta horri buruzko prestakuntza bultzatzea.

Horregatik, 2022. urterako EAEko aurrekontu orokorrek (2022. urterako EAEko aurrekontu orokorrak onartzeko abenduaren 23ko 11/2021 Legearen bitartez onartu ziren) dirulaguntza izendun bat emango diote EAEko BGAEen Federazioari, federazioak gizarte-aurreikuspen osagarria sustatzen eta jendarteratzen betetzen duen lanak eragindako gastuak ordaintzeko, bai eta gai horri buruzko prestakuntza ikastaroak antolatu eta emateko lanen gastuak ordaintzeko ere.

Era berean, 11/2021 Legean partida bana aurreikusten da honako hauentzat: Pentsioen behatokia/Gizarte-aurreikuspen osagarriko plana, eta Gizarte-aurreikuspen osagarria sustatzeko plana.

Bestalde, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legeak borondatezko gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko erakundeak arautzen ditu. Erakunde horiek pentsio osagarri nahikoak eratzeko moduko estandar egokiak izango dituzte, eta, izan ere, horiek izango dira Finantza Politikako Zuzendaritzak sustatu nahi dituen BGAE modalitateak. Horren arabera eta abenduaren 12ko 252/2006 Dekretua (borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen bidez antolatu diren gizarte-aurreikuspen osagarriko sistema jakin batzuk ezartzeko laguntza ekonomikoak arautzen dituen) oinarri hartuta, enplegu modalitateko BGAE berriak eratzeko laguntza eman nahi da. Laguntza horien helburua da aipatutako arauen babesean eratzen diren aurreikuspen-sistemak eratzeko eta martxan jartzeko gastuak estaltzen laguntzea, bai eta horien aurreko gastuak ere; eta, era berean, zuzeneko laguntza emango zaie erakunde berrian edo gizarte-aurreikuspeneko plan berrian sartzen diren bazkideei.

Azkenik, EAEn Gizarte Aurreikuspen Osagarria sustatzeko lanen barruan, komeni da joan den ekitaldian Sarriko Fakultatearekin (EHU) lankidetzan hasitako Gizarte Aurreikuspeneko Oinarrizko Ikastaroa antolatzen jarraitzea.

- Aseguru-bitartekaritzaren jarduera sustatzea eta garatzea

Euskal Autonomia Erkidegoko aseguru-en banaketaren jarduera bultzatu nahi da, sail honek aseguru- eta berraseguru-banatzaileen eta jarduera horretan parte hartzen duten gainerako pertsonen prestakuntzan lagunduz, bai lanbidean jarduteko administrazio-baimena eskuratzeko beharrezkoak diren prestakuntza-betekizunei dagokienez, bai dagoeneko dihardutenei nahitaezko etengabeko prestakuntza emateari dagokienez.

Prestakuntza-premia horiek berariaz aurreikusita daude otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuan, zeinak aseguru eta berraseguru pribatuen banaketari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urtarrilaren 20ko 2016/97 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten baitu. Arlo

horretan, berritasunak izan dira Aseguru-bitartekaritzari buruzko 26/2006 Legeak (A, B eta C taldeak) jasotzen zuen aurreko sailkapenean. Sailkapen hori desagertu egin da, eta orain sailkapen berri bat sortu da, mailakakoa: 1. maila, 2. maila eta 3. maila. Gaur egun, honako hau da aplikatu beharreko eta indarrean dagoen araudia: Apirilaren 20ko 287/2021 Errege Dekretua, aseguru- eta berraseguru- banatzaileen prestakuntzari eta estatistika- eta kontabilitate-informazioa bidaltzeari buruzkoa, eta 2021eko ekainaren 3ko Ebazpena, Aseguru- eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiarena, aseguru- eta berraseguru- banatzaileentzako prestakuntza-ikastaro eta -programen oinarritzako printzipioak ezartzen dituena. Aseguru- eta Pentsio Funtsen Errege Zuzendaritza Nagusiak baimendu ditu horiek, otsailaren 4ko 3/2020 Errege Dekretuaren 165. artikuluan xedatzen denaren bidez.

Aurreko ekitaldietan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Aseguru Bitartekarien Kontseiluak antolatzen eta ematen du prestakuntza hori (kontseilu hori Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko aseguru-bitartekarien elkargoek osatzen dute), eta, helburu horrekin, 2022. ekitaldiko EAEko aurrekontu orokorretan gastu horiei aurre egiten laguntzea aurreikusi da, organo horri dirulaguntza izendun bat emanez.

Dirulaguntza horren bidez, 1. mailarako sortutako gastuetan lagundu nahi da. Maila hori derrigorrezkoa da honako jarduera hauetako langileentzat:

1. Aseguru- eta berraseguru-artekariak (pertsona fisikoak).
2. Banaketa-jardueraren arduraduna edo, hala badagokio, banaketa-jardueraren zuzendaritza-organoa osatzen duten kideen erdia gutxienez, honako hiru kasu hauetan:

- ✓ Aseguru- eta berraseguru-artekariak (pertsona juridikoak).
- ✓ Banku-aseguru- operadoreak.
- ✓ Erakunde aseguratzailerak eta berraseguratzailerak.

- EAEko enpresa txiki eta ertainen finantzaketa baldintzak hobetzea.

Helburu horrekin, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak hitzarmenak sinatu izan ditu urtero hainbat finantza-erakunderekin, finantza arloan eskumenak dituen sailaren bitartez. Hitzarmenok enpresa txiki eta ertainei zein profesionalei bermeak errazago emateko izan dira, eta administrazioak bere gain hartu du abala jaso duten enpresa eta autonomoek porrot egiteko arriskuaren zati bat.

2020ko erabakirik garrantzitsuenak martxoaren 31ko 50/2020 Dekretua onartzea izan zen. Horren bidez garatzen da enpresa txiki eta ertainei, banakako enpresaburuei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko 2020ko programa, COVID-19aren inpaktuari aurre egiteko. Dekretu hori, ondoren, maiatzaren 19ko 67/2020 Dekretuak aldatu zuen.

Halaber, 2021ean, Administrazioak EAEko enpresei finantza-laguntzak emateko neurriekin jarraituz, martxoaren 9ko 106/2021 Dekretua onartu zen. Horren bidez garatzen da enpresa txiki eta ertainei, banakako enpresaburuei eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko 2021eko programa, COVID-19aren inpaktuari aurre egitekoa.

Dekretu horren esparruan, hitzarmenak egin ziren finantza-erakunde nagusiekin eta Elkargi EBBrekin 2020 eta 2021 urteetan. Hitzarmen horiei esker, 8.600 enpresak baino gehiagok finantzaketa eskuratu ahal izan zuten baldintza onuragarrietan, eta gutxi gorabehera 754 milioi euro inguruko finantzaketa-bolumena estali zen.

2022an, aipatutako dekretuen esparruan formalizatutako mailegu eta abaletatik eratorritako dirulaguntzen ordainketaren administrazio-kudeaketarekin jarraituko du Finantza Politikako Zuzendaritzak. Horien barnean, EAEko administrazioak diruz laguntzen ditu enpresek ordaindutako interesen % 100 eta abal-komisioaren % 50, eragiketak amaitu arte (2020-2029).

Era berean, euskal enpresei finantza-laguntza emate aldera administrazioak hartu neurriekin jarraituz, 2022an, aurreikusi da programa bat onartzea finantza-laguntza emateko enpresa txiki eta ertainei, banakako enpresaburuei eta profesional autonomoei, energiaren eta lehengaien prezioen igoerari erantzuteko. Programa horrek, bada, martxoaren 31ko 50/2020 Dekretuaren eta martxoaren 9ko 106/2021 Dekretuaren itzalpean formalizatu ziren eta indarrean dauden maileguetan ere izango du eragina.

Programa hori baliatuz, urtebetez luzatu ahal izango da COVID programaren bidez formalizatutako maileguen gabealdia, hala egiteko bidea zabaltzen baitute Gobernu Kontseiluak Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei buruz hartutako erabakiek (2022ko apirilaren 12ko bileran hartu zituen).

2022an, EAEko administrazioak Elkargi EBBrekin birfidantzamendu-hitzarmen berriak egitea aurreikusita du, EAEko ETEen inbertsio-proiektuen finantzaketari estaldura emateko. Hitzarmen horien bidez Administrazioak bere gain hartuko luke abala emandako enpresa txiki eta ertainen edo autonomoen porrot egiteko arriskuaren zati bat.

Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak urteak daramatza hitzarmenak sinatzen EAEko elkarrekiko berme-baltzuekin, haien funts propioak sendotzeko, hornidura-funts teknikoa handituta; gaur egun, halako ezaugarriak dituen sozietate bakarra dago EAEn egoitza daukana, Elkargi EBB. Horri esker, berme-baltzuak abal-eragiketa berriak onartzeko duen gaitasuna hobetu daiteke, eta EAEko enpresei finantzaketarako sarbidea erraztu dakieke.

Illo horretan, 2022rako aurreikusita dago Elkargi EBBren hornidura-funts teknikoa indartzeko hitzarmen bat formalizatzea.

- Partaidetzako mailegua indartzea, enpresentzako finantza-tresna eskuragarria izanik.

Luzaro Establecimiento Financiero de Credito SA 1992ko urriaren 30ean eratu zen, eta haren oinarritzko helburua EAEko enpresa txiki eta ertainei partaidetzako mailegu nahiz kredituak ematea da. Mailegu mota horiek mendeko finantzaketa gisa hartuak dira, eta, beraz, sozietatearen funts propioen baliokideak dira. Bada, maileguon helburu nagusia enpresa horiek aktibo finkoetan egiten dituzten inbertsioak finantzatzea da, eta oso amortizazio epe luzea izan ohi dute –normalean, hamar urtekoa, gutxienezko bost urteko gabealdiarekin–.

Luzaro EFC SAren jarduera sustatzeko zenbait lankidetzak-hitzarmen gauzatu dira alderdien artean, eta, maileguen amortizazio-epe luzeen ondorioz, indarrean jarraitzen dute 2006ko abenduaren 20an, 2007ko urriaren 4an eta 2012ko ekainaren 12an sinatutakoek. 2006ko abendutik aurrera, gainera, dirulaguntzak jasotzeko aukera eskaintzen da finantza-konsolidazio eta -berregituraketako maileguetan ere.

2020an finantza-lankidetzarako hitzarmen berri bat formalizatu zen Luzaro EFC SArekin beste lau urterako, eta, horrela, jarraipena emango zaie EAEko ETEen finantzaketarako laguntza-neurriei.

Hitzarmen horietan Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu zuen partaidetzako maileguetan ordaindu ezinik geratutako kopuruaren ehuneko bat bere gain hartzeko, bai eta Luzaro EFC SAri honakoa ordaintzeko: sozietate horrentzat une bakoitzean dagoen diferentziala, partaidetza-mailegu bakoitzaren eta dagozkien birfinantzaketa-maileguen artean. Era berean, maileguen abal-komisioaren % 50 diruz lagunduko da, mailegu horiek elkarrekiko berme-baltzu laguntzaile batek emandako abala dutenean.

Asmo horrekin, ekitaldi bakoitzean formalizatuko diren maileguentzako ordainketa-kreditu bat sartu eta kontabilizatu da aurrekontuan, etorkizuneko konpromiso-kredituak biltzen dituen, maileguen bizialdi osoan dirulaguntzari aurre egiteko aurrekontu-oinarri bezala.

Dirulaguntza, lehen aipatutako diferentzialaren berdina, Luzaro EFCren esku jarri behar da aipatu hitzarmenetan alde aurretik ezarritakoarekin bat; alegia, urtean bitan, seihileko natural bakoitzean, konturako ordainketa gisa, ondorengo behin betiko justifikazioa eta likidazioa egin bitartean.

- Genero-berdintasunerako planak sustatzea enpresetan, horretarako berariazko neurriak ezarriz sinatzen diren finantza-hitzarmenetan.

Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriei buruzko martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretua, Berdintasun-planak eta horien erregistroa arautzen dituen urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretua eta EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana betetzeko, Eusko

Jaurlaritzak genero-berdintasunerako planekin lotutako betebeharrak jakin batzuek sartuko ditu Elkargi EBBrekin ekitaldi honetan formalizatu beharreko finantza-hitzarmenetan. Betebeharrak horien ordainetan, laguntza-neurri gehigarriak ezarriko ditu, betiere arau- eta aurrekontu-esparruak hori egitea ahalbidetzen badu, modu berezian.

Ilde horretan, EAEko administrazio orokorrak, 2020an Elkargi EBBrekin eta Luzaro EFCrekin formalizatutako hitzarmenetan, zenbait zehaztapen ezarri zituen erakunde horien barruan emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak onartzea bultzatzeko. Elkargi EBBk eta Luzaro EFCK zeinek bere emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana onartuta eta erregistratuta dute.

2022an Elkargiarekin lankidetzak hitzarmen bat formalizatzea aurreikusten da, haren sozietate-oinarria osatzen duten enpresen kolektiboaren barruan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak onartzea bultzatzeko.

Horrela, «Genero-berdintasunerako planak bultzatzea» egitasmoa berriro sartu da Finantza Politikako Zuzendaritzak 2022ko ekitaldirako dituen helburu estrategikoen artean.

Plan honetan jasotako ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak bat datoz XII. legegintzaldirako 2020-2024 Gobernu Programarekin. Programa horrek hiru jarduketak printzipio aipatzen ditu, besteak beste, honako hau: «Ekonomia eta enplegua suspertzea», COVID-19aren pandemiak sortutako ondorio ekonomiko eta sozial kaltegarriak erantzuteko; eta, horrez gain, autonomoei, mikroenpresei eta enpresa txiki eta ertainei laguntza ematea nabarmentzen du, COVID-19aren ondorioei aurre egiteko konpromiso nagusien artean.

IV. Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak

Jarraian, planaren ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak zerrendatuta daude, saileko unitate organiko bakoitzeko, zirkularraren 1. eranskineko 3. apartatuko a), b) eta c) alderdiak zehaztuta:

EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA
61111 programa

1. helburu estrategikoa: EAEko ekonomiaren bilakaera aztertzea

1. dirulaguntza-lerroa: EAEko Ekonomiako Doktorego Tesi Onenaren Alberto Alberdi Sariaren I. edizioa

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua:

- Ikerketa-ahalmena azaleratzea eta arlo ekonomikoan talentua eta interesa duten gazteak topatzea, eta horien ikertzaile-ibilbide hasiberria erraztea.

- Ekonomia aplikatuaren ikerketa bultzatzea eta gazteen adimen-gaitasuna eta talentua aprobetxatzea EAEko ekonomia hobetzeko.

- Mundu akademikoaren eta administrazio publikoen artean zubi iraunkorrak sortzea, ateak irekiz eta beren asmamena ekonomia berritzeko eta ekonomiaren funtzionamendua ulertzeko eredu, tresna eta teknika berriak sortzera bideratzen duten pertsonak sarituz.

- Gazteriaren hausnarketa eta azterketa independenteak aprobetxatzea, ekinbide publikoa hobetzeko balioko duten azterlan onak izateko.

1. ekintza: EAEko Ekonomiarekin lotutako Doktorego Tesi Onenaren Alberto Alberdi saria antolatzea.

Adierazleak:

- Eraginkortasuna: saria ematea (esleitu gabe ez geratzea)
- Gaiarekiko egokitzapen-maila eta garrantzia: onartu diren EAEko ekonomiari buruzko tesien kopurua/Sarira aurkeztutako tesien guztizko kopurua
- Hedapen-maila: sarira aurkeztutako tesien guztizko kopurua/hiru unibertsitateetan Ekonomia arloan defendatutako tesien kopurua.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 10.000 €

22.0.1. 06 6111 11 451 21/0773.

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Sektore hartzailea: Euskal Autonomia Erkidegoko edozein unibertsitatetan EAEko ekonomiaren arloan doktorego-tesia aurkeztu duen edonor.

Emateko prozedura: Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren agindua, lehiaketaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzekoa.

FINANTZA POLITIKAKO ZUZENDARITZA
6311 programa

1. helburu estrategikoa: EAEn Borondatezko Gizarte Aurreikuspena lagundu eta sustatzea

1. dirulaguntza-lerroa: EAEko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioari, funtzionamendurako eta bestelako sustapen-ekintza batzuetarako.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: EAEko BGAE Federazioari laguntzea gizarte-aurreikuspen osagarritzko jardueretan.

1. *ekintza:* gizarte-aurreikuspen osagarriak bultzatu eta lantzeko jardunaldiak antolatzea.

2. *ekintza:* Federazioari laguntzea gizarte-aurreikuspen osagarria sustatzeko lanean.

Adierazleak: Federazioak antolatutako jardunaldien kopurua

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 18.000 €. 06 6311 21 452 22/0904

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Sektore hartzailea: EAEko BGAE Federazioa

Emateko prozedura: dirulaguntza izenduna, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak agindu bidez emana.

2. dirulaguntza-lerroa: gizarte-aurreikuspen osagarriaren sustapena.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

1. *helburua:* enplegu modalitateko lehentasunezko BGAE berriak eratzen laguntzea. 5/2012 Legea, otsailaren 23koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeena (BGAE), eta 252/2006 Dekretua, abenduaren 12koa, «Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen bidez antolatutako

gizarte-aurreikuspeneko sistema jakin batzuk ezartzeko laguntza ekonomikoak» arautzen dituen.

- *1. ekintza:* gizarte-aurreikuspeneko sistema osagarriak eratu eta martxan jarri aurreko gastuetarako dirulaguntzak ematea. Gastu horiek, besteak beste, honako hauek egiteagatik izan daitezke: kanpoko aholkularitzen azterlan juridiko eta ekonomikoak, bestelako aukeren azterketak, kolektiboaren balioespenak, erabakien instrumentazioa, eta hedapen-zein sustapen-kanpainak.
- *2. ekintza:* dirulaguntza ematea, enplegu modalitateko lehentasunezko BGAEentzat ezarritako baldintzak betetzen dituzten gizarte-aurreikuspeneko sistema osagarriak eratzeko eta martxan jartzeko gastuei aurre egiteko. Baldintza horiek BGAEei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legearen V. kapituluaren eta abenduaren 12ko 252/2006 Dekretuan ezartzen dira. Gastu horiek honako hauek izan daitezke, besteak beste: bazkideei informazioa emateko gastuak, sistema informatikoak, higiezinak, lansariak eta soldadak eta notario-gastuak.
- *3. ekintza:* erakunde berrira edo enplegurako gizarte-aurreikuspeneko plan berrira gehituko diren kideei gizarte-aurreikuspen osagarriko zuzeneko dirulaguntzak ematea.

Hiru ekintzen adierazleak: eratzen diren BGAE edo Aurreikuspen Plan berrien kopurua eta bazkide berrien kopurua.

2. helburua: EAEko gizarte-aurreikuspen osagarriaren garapena laguntzea.

- *1. ekintza:* Gizarte-aurreikuspen osagarriari buruzko oinarritzko ikastaroa: 2021az geroztik, Gizarte Aurreikuspen Osagarriko oinarritzko ikastaroa Finantza Politikako Zuzendaritzak ematen du, Sarrikoko Fakultatearekin (EHU) lankidetzan, borondatzeko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetako gobernu-batzordeetako kide berriei eta hala eskatzen duten unibertsitateko ikasleei gutxieneko prestakuntza beharrezkoa emateko.
Adierazleak: oinarritzko ikastaro bat, gutxienez.
- *2. ekintza:* prestakuntza/ikerkuntzako beka edo laguntzen deialdia egitea.
Adierazleak: beka kopurua:
- *3. ekintza:* komunikazio-kanpainak eta gizartea sentsibilizatzekoak egitea, estaldura osagarri egoki eta nahikoak era daitezen.
Adierazleak: sentsibilizazio-kanpainen kopurua.
- *4. ekintza:* ikastaroak eta hitzaldiak antolatzea bigarren hezkuntzako ikastetxeekin elkarlanean, ikasleak gizarte-aurreikuspen osagarriaren garrantziaz kontzientziazteko, zerga-kontuekin egiten den bezala.
Adierazleak: ikastaro, konferentzia eta hitzaldien kopurua.

3. *helburua*: batik bat Europan, eta, oro har, munduan, gizarte-aurreikuspen osagarriaren inguruan ezagutza eguneratua izatea.

- 1. *ekintza*: Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Behatokia martxan jartzeko 2021ean hasitako lanekin jarraitzea. Horretarako, sarbide-plataforma informatikoa eratuko da, eta munduan gaiari buruz argitaratzen den dokumentazio esanguratsuenarekin elikatu; halaber, aldizkako newsletterrak sortuko dira, sektorerazuzenduetan, eta Finantza Politikako Zuzendaritzan informazio-jardunaldi teknikoak antolatuko dira. Era berean, Behatokiak erantzuna emango die nazioarteko gizarte-aurreikuspenaren arloan Sailak egin ditzakeen eskaerei, arlo horretako politikak eta estrategiak lantzeko.

Adierazleak: gutxienez hiru newsletter. Gizarte-aurreikuspeneko berritasun nagusiak Eusko Jaurlaritzan aurkezteko bi jardunaldi. Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Euskal Behatokia ostatzeko plataforma informatikoa bat. Egin diren txostenen kopurua.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

- *Zenbatekoa*: 30.000€ 06 6311 21 452 22/0903
- *Zenbatekoa*: 100.000€ 06 6311 21 244 22/0901
- *Zenbatekoa*: 30.000€ 06 6311 21 244 22/0902

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Sektore hartzailea: EAEko BGAEak, BGAEetako gobernu-organismoetako kideak, BGAEetako bazkideak, ikasleak eta graduondokoak, bigarren hezkuntzako ikasleak eta herritarrak, oro har.

- *Emateko prozedura (1. helburua)*: abenduaren 12ko 252/2006 Dekretuan aurreikusten dena. Dekretu horrek hainbat laguntza ekonomiko arautzen ditu honako helburu honekin: borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde bidez antolatutako gizarte-aurreikuspen osagarriko sistema jakin batzuk ezartzea; laguntza horiek gaian eskumena duen sailburuordearen ebazpen bidez emango dira.
- *Emateko prozedura (2. helburua)*: beka-deialdiak eta publizitate-kanpainak egitea eta ikastaroak antolatzea Hezkuntza Sailarekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin koordinatuta.
- *Emateko prozedura (3. helburua)*: kanpoko kontratazioa.

2. helburu estrategikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko aseguru-banatzailerik tituludunak sustatzen eta garatzen laguntzea, prestakuntza bultzatuz.

1. dirulaguntza-lerroa: Aseguru Bitartekarien Kontseiluari, prestakuntzarako.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: EAEko Bitartekarien Kontseiluari laguntza ematea aseguru-banatzailentzako prestakuntza-ikastaroak antolatzeko.

1. ekintza: Bitartekarien Kontseiluak hainbat prestakuntza-ikastaro antolatu eta ematea.

Adierazleak: Kontseiluak emandako prestakuntza-ikastaroen kopurua eta prestakuntza-ekintza horietan parte hartzen duten pertsonen kopurua.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 10.000 euro
06 6311 21 452 19/0787

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Sektore hartzailea: EAEko aseguru-banatzailak

Emateko prozedura: dirulaguntza izenduna, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak agindu bidez emana.

3. helburu estrategikoa: ETEei eta banakako enpresaburuei finantzaketan laguntzea.

1. dirulaguntza-lerroa: Luzaro EFCK formalizatutako partaidetzako maileguen interes-tasak eta abal-komisioak diruz laguntzea, baita elkarrekiko berme-baltzu baten abala duten maileguak ere, eta kobraezinak partzialki estaltzea partaidetzako mailegu guztietan.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: Luzaro EFCK partaidetzako maileguak ematea sustatzea EAEko enpresa txiki eta ertainentzako zein banakako enpresaburuentzako finantzaketa-tresna gehigarri gisa, baita Luzaro EFC Saren epe luzerako finantza-konsolidaziorako maileguak ematea sustatzea ere.

1. ekintza: partaidetzako maileguak ematen eta finantza-konsolidazioan laguntzeko programa. Ekintza zehatzak:

- finantza-lankidetzarako hitzarmena kudeatzea.

Adierazleak:

6 ordainketatan banatzea interes-tasen eta abal-komisioen gaineko dirulaguntzak.

4 ordainketa hitzarmenetik eratorritako kobaezinetarako. Hiru hilez behin.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa:

06.6311 21 750 22/0809 650.000€

Luzarori dirulaguntza ematea ETEak finantzatzearen kostua (aurreko ekitaldietakoa) murrizteko.

06.6311 21 750 22/0810 90.000€

Luzarori dirulaguntza ematea ETEak finantzatzearen kostua (ekitaldikoa) murrizteko.

06 6311 21 239 22/0803 500.000€

Luzaro EFCK betearazitako bermeak

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Sektore hartzailea: enpresa txiki eta ertainak eta banakako enpresaburuak.

Emateko prozedura: 2020ko abenduaren 23ko finantza-lankidetzarako hitzarmena, EAEko administrazioaren, finantza-erakundeen, elkarrekiko berme-baltzuen eta Luzaro EFC Saren artean. Hitzarmena 4 urterako da. 2021ean ez da beste hitzarmenik formalizatzea aurreikusten.

2. dirulaguntza-lerroa: kobaezinak estaltzea, eta elkarrekiko berme-baltzuetako hornidura-funts teknikoa indartzea.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: elkarrekiko berme-baltzuen jarduera indartzea, bazkideei (enpresa txiki eta ertainei edo banakako enpresaburuei) finantzaketan laguntzen dieten erakunde mutualista diren aldetik.

1. ekintza: enpresa txiki eta ertainei zein banakako enpresaburuei finantzaketa-kostuak murrizten laguntzea, erakunde horiek emandako abala duten arriskuen birfidantzamendua eginez. Ekintza zehatzak:

- 2022rako beste 2 birfidantzamendu-hitzarmen formalizatzea.
- Hitzarmenak betetzea aldizkako likidazioak eginez.
- Elkarrekiko berme-baltzuetako hornidura-funts teknikoa sendotzeko dirulaguntzaren gaineko kudeaketa-hitzarmen berri bat formalizatzea.

Adierazleak:

- 2 birfidantzamendu-hitzaumen berri.
- 1 hitzaumen, hornidura teknikoak sendotzeko.
- 4 ordainketa, hitzaumenetik eratorritako kobraezinetarako (hiru hilez behin).
- 1 ordainketa, hornidura-funts teknikoak sendotzeko.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa:

06.6311 21 750 21/0800 150.000€ (handitu daiteke)

Hornidura-funts teknikorako dirulaguntza

06.6311 21 239 22/0804 3.715.400€

Birfidantzamendu-hitzaumenak

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Sektore hartzailea: elkarrekiko berme-baltzuak, baita ETEak eta banakako enpresaburuak ere.

Emateko prozedura: 2 birfidantzamendu-hitzaumen oinarritzko eta osagarri berri Elkargi EBB sozietatearekin, 2022ko ekitaldian formalizatutako finantza-abaletarako.

Elkargi EBBren hornidura-funts teknikoak sendotzeko hitzaumen berria, elkarrekiko berme-baltzuaren abal-jarduerari eta, batik bat, bazkideen artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planak bultzatzeari lotuta.

3. dirulaguntza-lerroa: elkarrekiko berme-baltzu batek abala emandako maileguen interes-tasa eta abal-komisioa diruz laguntzea, dekretu hauen esparruan: martxoaren 31ko 50/2020 eta martxoaren 9ko 106/2021 dekretuak. Horien bidez, enpresa txiki eta ertainak, banakako enpresaburuak eta profesional autonomoak finantzatzeko 2020 eta 2021 urteetarako laguntza-programa bana antolatu da, COVID-19aren ondoriozko eragin ekonomikoari aurre egiteko.

Energia eta lehengaien prezio-igoerari erantzutearren, 2022an dekretu bat onartu zen, haren bidez programa bat garatzeko, finantza-laguntza emateko enpresa txiki eta ertainei, banako enpresaburuei eta profesionalei. Dekretu horren itzalpean Elkargi EBBk abalatutako eta Covid-19 Programaren barruan formalizatu ziren eta indarrean dauden mailegu batzuei 2022an luzatu egin zaie amortizazio-gabealdia. Bada, mailegu horien interes-tasa eta abal-komisioa diruz lagunduko dira.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: 50/2020 eta 106/2021 Dekretuen itzalpean eta orobat energiaren eta lehengaien prezioen igoerari aurre egiteko 2022an onartu beharreko

dekretuaren itzalpean, Euskal enpresen finantzaketa-kostuak murriztea. Lehen bi dekretu horien bidez, programa batzuk egituratu ziren, 2020 eta 2021ean finantza-laguntza emateko enpresa txiki eta ertainei, banako enpresaburuei eta profesional autonomoei, hartara Covid-19ren eragin ekonomikoari erantzuteko.

1. *ekintza*: enpresa txiki eta ertainentzako eta banako enpresaburuentzako finantzaketa-kostua murrizteko laguntza. Ekintza zehatzak:

- dirulaguntzen ordainketaren administrazio-kudeaketa.
- 2020, 2021 eta 2021ean Elkargi EBBrekin eta finantza-erakundeekin formalizatutako lankidetzak-hitzarmenak betetzea, enpresentzako dirulaguntzen aldizkako likidazioekin.

Adierazleak:

1 ordainketa urtean, abal-komisioko dirulaguntzak likidatzeko
1 ordainketa hilean, interesen dirulaguntza likidatzeko (finantza-erakundeak).

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa:

06 1229 21 750 21/0802 1.959.219€

ETeen finantzaketa-kostua murrizteko dirulaguntza - Abal-komisioko dirulaguntza

06 1229 21 751 21/0803 9.095.920€

ETeen finantzaketa-kostua murrizteko dirulaguntza. Interes-tasa

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Sektore hartzailea: elkarrekiko berme-baltzuak, baita ETEak eta banakako enpresaburuak ere.

Emateko prozedura: dekretuak eta finantza-erakundeekin eta Elkargi EBBrekin 2020, 2021 eta 2022 urteetan formalizatutako finantza-lankidetzako hitzarmenak, dekretuen esparruan

4 Helburu estrategikoa: genero-berdintasuneko planak sustatzea

1. dirulaguntza-lerroa: Elkargi EBBren hornidura-funts teknikoa indartzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak bultzatzeko bazkideen artean

b) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Helburua: genero-berdintasunerako planen ezarpena sustatzea EAEko ETEetan, honako hauetan xedatutakoa betetzeko: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa; 6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta

gizonen arteko tratatu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriena; eta EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. plana.

1. *ekintza*: EAEko enpresa txiki eta ertainetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak onartzea sustatzeko laguntza-programa. Ekintza zehatzak:

- Elkargi EBBrekin lankidetza-hitzaumen bat formalizatzea
- Lankidetza-hitzaumenak kudeatzea

Adierazleak:

1 lankidetza-hitzaumen berri Elkargi EBBrekin

1 lankidetza-hitzaumenen kudeaketa

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

06.6311 21 750 21/0800 150.000€ (handitu daiteke)

Hornidura-funts teknikorako dirulaguntza

Elkargiren hornidura teknikoak indartzeko hitzaumena

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Sektore hartzailea: enpresa txiki eta ertainak eta banakako enpresaburuak.

Emateko prozedura: finantza-lankidetzarako hitzaumena Elkargi EBBrekin, sozietate-oinarria osatzen duten emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak sustatzeko, sozietatearen hornidura-funts teknikoa indartuz.

